

Kupo Legea ostiralerako utzi dute Larrea eta Zabalzak

MADRIL

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Administrazioaren ordezkariak aste honetako ostirala arte atzeratu dute Kupo Legearen sinadura, Jose Luis Larrea eta Antonio Zabaltza Hazienda arduradunek atzo Madrilen egin zuten bileran behin-betikoko akordioa lortzerik izan ez zutelako.

Larrea eta Zabaltzak ez zuten esan atzoko bileraren ostean Euskal Autonomi Elkarteak zenbat diru eman behar izango dion Estatuari, baina iturri guttien arabera diru kopuru hori 100.000 milioi pezeta ingurukoa izango da aurten. Kupo Legeak, berriz, bost urteko iraupena izango du onartzen denean.

Akordio hau lortu ez bazuten ere, Larreak iragarri zuenez, Eusko Jaurlaritzak ez du trabarik jarriko Madrileko Gobernuak prestatu duen Bateratasun Planari.

Espainiako Administrazioaren ordezkariak Estatuaren elkarte autonomoetako ordezkariekin bilduko dira gaur horretaz eztabaidatzeko.

Azken hau ez dator bat Eusko Jaurlaritzako zenbait buruzagik eta Larreak berak esandakoarekin, hauek Bateratasun Planaren onarpena Kupo Legearekin baldintzatzen bait zuten.

Eusko Jaurlaritzako Hazienda arduraduna oso baikor azaldu zen iragan astean negoziazio hauekin, akordioa «egina» zegoela eta «gauza batzuk zehazteko» zehazteko esan zuen.


Larreak ziurtatu zuenez, lege hau onartzeak Eusko Jaurlaritzak AHV eta Acenorren izango duen partaidetza ahalbideratuko du eta akordiorik ezean, berriz, «ezin izango dugu ezer zehaztu, ez Jaurlaritzak industri birmoldaketan izango duen partaidetza ez transferentziak eskuratu» esan zuen.

Gobernuaren lan neurriak langileen aurkako erasotzat jo ditu ELAk

J.A./DONOSTIA

ELA sindikatuak dei egin zien atzo Euskal Herriko langileei Espainiako Gobernuaren Bateratasun Planak jasotzen dituen lan neurriak aurka egiteko. Sindikatu horren ustez, neurri horiek langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da.

ELA bezala, Espainiako sindikatu nagusiak diren UGT eta CCOOek ere gogor kritikatu dute Espainia Europarekin bateratzeko planak jasotzen dituen neurriak, langabeentzako dirulaguntzak kobratzeko gutxienez urtebetez lan egin behar izatea, laguntza horien zenbatekoa gu-



Basauriko Acenorren iragan asteazkenean bukatu zen materiale blokeoa.

XOUSE SÍMAL

Acenorreko langileek materialearen oztopatzeari utzi zioten atzo

Mobilizazioen artean lau orduko greba egingo dute gaur

Acenorreko langileek bertan behera utzi zuten atzo materiale irteeraren blokeoa, zuzendaritzak otsaileko soldata asteazkenean ordainduko diela agindu ondoren. Sidenorrek ezarri nahi duen planaren aurkako mobilizazioek, berriz, aurrera jarraitzen dute eta gaur lau orduko geldialdia egingo dute langileek.

BILBO

Atzo goizeko seietan bertan behera utzi zuten Acenorreko langileek ia hilabete luzatu duten lantokietako materiale irteeraren blokeoa. Sindikatuak hala egitea erabaki zuten Sidenorrek hilaren

25erako agindu bait die otsaileko soldata, materialearen ateratzea uzteko baldintzarekin. Gasteiz eta Basauriko lantegietan joan den asteazkenean eman zioten bukaera blokeoari eta atzo gaintzeko beste hiru lantokietan gauza bera egin zuten.

Era berean batzarrak egin zituzten atzo ere bost lantegietan, sindikatuak aste honetarako deituriko mobilizazioak onartzeko.

LAU ORDUKO GELDIALDIA

Acenorrek Hernani, Audio, Gasteiz, Larrondo eta Basaurin dituen lantegietan txanda bakoitzeko lau orduko geldialdia egingo dute gaur langileek, altzairu berezien enpresako zuzendaritzak ezarri nahi duen plangintza estrategikoaren aurka protesta egiteko.

Acenor eta Cantabriako Foarsa biltzen dituen Sidenor holdin-geko arduradunen plangintzak Hernani eta Audioko lantegia itxi eta 1.845 lanpostu kentzea proposatzen du eta zentzu honetan ostegunean Madrileko Lan agintaritzaren aurrean kontratu etendura espedienteak aurkez deza.

Espedientearen, eta beraz, plana indarrean jartzearen aurka CCOO, ELA, LAB eta UGT sindikatuak ordezkariak egindako mobilizazioen egutegiaren barruan sartzen da gaurko lau orduko grebaldia. Ostegunean, berriz, hogeitalau orduko greba egitera deitu dute sindikatuak eta arratsaldeko sei terdian Bilboko kaleetan zehar manifestazioa burutuko dute Acenorreko bost lantegietako langileek.



Carlos Soltxaga ministroa

la ez izateko modua aurkituko dutela uste dute.

Gauzak horrela, sindikatuak ez dute baztertzeko neurri hauek aurrera egingez gero greba orokorrerako deia egitea.

LABURREAN

KAMIOI ilada gehiago Irunen

Berriz ere, kamioi iladak izan ziren atzo Irungo mugetan, aduana agentzietako langileek egun osoan egindako arretazko grebaren ondorioz. Greba hau Espainiako aduana guztietako langileek egin zuten, beren eskakizunak Administrazioa ohartarazteko.

ARABAKO

metalgintzako sindikatuek SEA salatu dute

UGT, CCOO, ELA eta LAB sindikatuak metalgintza sailko ordezkariak Arabako Enpresarien Elkarteari (SEA) sektore honetako konbenbio kolektiboa negoziatzeari uko egin eta berau sinatu aurretik baldintzak jartzea leporatu diote. Sindikatuak eskabide plataformak bateratua aurkeztu zuten otsailaren hasieran eta % 8ko soldata igoera zein 25 orduko lan ihardunaldiaren murrizketa eskatzen dute, baina SEAk azken hau errefusatu egin du.

BIHARKOK euskal kutxen aseguruak bideratuko ditu

Biharko Taldeak Euskal Autonomi Elkartearen (EAE) hiru kutxen aseguru negoziak bideratuko ditu. Bizkaiko BBK, Gipuzkoako Kutxa eta Arabako Vital kutxaren aseguruaren ardurak hartuko duen taldea bost sozietatek osatzen dute eta nagusia Biharko Vida litzateke. Taldeko buruan dagoen sozietate honek pentsio aholkularitza zerbitzua, bateratze prozesuan dauden bi aseguru etxe eta aseguru orokorreko konpainia bat biltzen ditu.

SESTAOKO untziolak kalitate probak gainditu ditu

Sestaoko La Naval-ek untzien muntaiari buruzko kalitate begiraleta gainditu du. Norvegiako Det Norske Veritas konpainiak egindako azterketa proba hauek gainditu ondoren, Astilleros Españolesek Sestaoko daukan untziolak itsasontziak eraikitzen ziklo osoa dauka homologaturik, antolaketa, teknologia eta kalitate aldetik «nazioarteko ekoizleurreratueneren mailara heldu ondoren».